

Prest!



BERBETAN: MIKEL AGUIRRE RUIZ DE GOPEGUI ARKEOLOGO PALEOLITISTA

ERREPORTAJEA: ARKOTXAGANE BASERRIA, EHUN URTEKO GAZTEA BARKUA: **PATXADAZ: DISKO BERRIA**

214-215-216-217-



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukiaren erantzule bakarra



Babestu
Prest!

urtean 25€

- Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:
- Izen-abizenak
 - Helbidea
 - Telefonoa
 - E-posta
 - Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

| | | | | |
|--------------------------|--|--|-------------------------|-----------|
| | Maidera Zalbidea Pardo - Iker Basabe Mendizabal | | Iritzia | 4 |
| | Olatz Ortega Vidales | | Gureak kanpoan | 5 |
| e | erreportajea Arkotxagane baserria, ehun urteko gaztea | | | 6 |
| | <i>Gure datuak zuzenak badira, Arkotxagane Deustuan eraikitako azken baserria da. Orduan ehundik gora ziren gure herriko baserriak. Mende bat geroago, dozena bat baino ez dira. Eta azken ehun urteotan etengabe familiaren bizileku izan direnak aitatzen hasi ezker, Arkotxagane eta beste baten bat baino ez. Lehenengo mende honen historia PREST!eko irakurleekin partekatu nahi dute. Bagoaz?</i> | | | |
| | Intxixu Ikastola | | Eskolak | 10 |
| | Ramal de Olabeaga, Erriberarako bidea (1860) | | Behin batean | 12 |
| | Bilboko azken artisau-euritakoak | | Artikulua | 14 |
| b | berbetan MIKEL AGUIRRE RUIZ DE GOPEGUIrekin | | | 16 |
| | <i>Gasteizko estudio berrian elkartu gara Mikel Aguirre arkeologo deustuarrarekin. Etxean gordeta izan duen materiala bertara eramaten aurkitu dugu, izan ere, etxea izan du esperimentazio eta ikasketa leku orain arte. Urteak daramatza arkeologia esperimentalean lanean, Goi Paleolitikoko erregistroa aztertzen.</i> | | | |
| | La Parra txakolindegia (1960) | | Irudiak berbetan | 21 |
| | GAZTEALDIA Maite Sarasola Isazelaia: '8 egun baino gehiago' | | | 24 |
| | PATXADAZ Reggae-rap erromeriatik metal-rap taldera | | | |
| | PINTXODROMOA Txistorra eta odolostea | | | |
| | KULTUR TXOTX Mikel Begoña eta Jon Mikel Benito del Valle Solaun | | | |
| barkua bete herba | | | | |

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra

Eredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Helene Sarazola, Iñigo Martinez Peña, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrea

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Jone Gartzia Gerra

Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01

ISSN: 1577 - 9017



Elkartasunak mugarik ez!

Elkartasuna, “helburu bera dutela edo gauza bera komeni zaiela ikusten duten lagunen artean elkarrekin aritzeko edo elkarri laguntzeko sortzen den batasuna”. Hori da Euskaltzaindiak ‘elkartasuna’ hitzarentzako duen esanahia. Aurten “elkarrekin, elkarrekin”...

Beste azaro bat Deustuko Elkartasun Eguna antolatzen eta urrun daudenek pairatzen duten egoera salatzen. Mendi marxa, ekitaldia, herri bazkaria, kontzertu akustikoak... alde batera uztera behartuta sentitu gara oraingoan. Horren ordez, Deustuko Herriko Tabernara hurbildu, bakoitzak bere bazkaria hartu eta urrunetik elkartasun horren berotasuna

transmititzea egokitu zaigu.

Egun honen izenaren definizioa bueltatuz, helburu bera badugu eta lagunen artean eta batasunez aritzearen emaitza da egun honek aurrera egitearen gako. “Elkarrekin” hitza izan da “elkartasuna” hitzaren definizioan aurten faltatu izan zaiguna. Aurten ez baikara zuzenean elkarrekin egon, baina elkartasuna helarazi egin dugula argi dago.

Bizi dugun egoerak, era batean edo bestean, mugatzen gaitu, bai; baina elkartasunak, beste urte batez, Deustun mugarik ez duela erakutsi du. Elkarrekin ez. Baina elkartasunean bai.



Zizare zuloak, trenak eta ikaskide ohiak

Wikipediaren hitzetan, ‘zizare zuloa’ erlatibitate orokorraren ekuazioek deskribatutako espazio-denboraren ezaugarri topologiko hipotetiko bat da. Zenbait fisikarik azaldu bezala, espazio eta denboran zehar garraiatzeko laburbide gisa funtzionatuko luke, bi momenturen arteko pasabide tenporala sortuz.

Osasun egoera aldrebesak agerian utzi ditu, beste behin ere, politika instituzionalak dituen gabezia eta ezintasunak. Hilabete honetan jakin izan dugu abiadura handiko trenaren lanak ez direla, garraio sailburuak esanda, 2024. urtea baino lehen

bukatuko. Denbora eta aurrekontu luzaketan aurrekaririk ez duen obra faraoniko hau Familia Sakratuaren Tenpluaren antza hartzen hasia da, Eusko Labelduna, noski.

Azkeneko berri honek 11 urte nituen egunetara eraman nau. Xabier Olabarrik eta biok - hau irakurtzen baduzu, besarkada bat, lagun- tren berriaren inguruko hitzaldi bat egin genuen. Proiektuaren nondik norakoak azaldu genituen, kostu ekonomikoa, garapenaren izenean egiteko zegoen sarraskia... Hamar urte geroago, zizare zulotik atera berri izango banintz bezala sentitu naiz Iñaki Arriolak esandakoa irakurtzean.



Olatz Ortega Vidales

Jatorria: San Inazio

Bizitokia: Jönköping, Suedia

Lanbidea: Biologoa eta biologia irakaslea



“Oso zaila da jendea ezagutzea bizitza etxeetan edo kirol-instalazioetan egiten dutelako”

Abuztuaren 30ean hartu zuen Olatz Ortegak Suedia hegoaldean dagoen Jönköping hirira eramango zuen hegazkina. European Solidarity Corps programarekin urtebeteko boluntario lana egiten dabilbertan. Euskal Herrian gazteekin lan egitea du amets, eta horretarako, hainbat bezkuntza-sistema ezagutu nahi ditu.

Zertan ari zara lanean?

Suedieraz Fritidsgård deitzen diren lekuetan egiten dut lan. Egutero 13:00etatik aurrera zabalik dauden espazioak dira eta 10-27 urteko gazteak etor daitezke. Gazteen aisirako toki seguru eta libreak dira. Nire eginkizuna inguru demokratiko batean gazteentzako ekintzak prestatzea da, gure desberdintasun kulturalak abiapuntu erabiliz.

Nolako herria da Jönköping?

Jönköping (*Yonsopin* ahoskatzen da) Suediako hamargarren hiririk handiena da (140.000 biztanle inguru). Oso hiri fededuna da, baina badu langileria mugimendua; izan ere, hemen fabrikatu ziren munduko lehenengo pospolo seguruak. Gainera, unibertsitate internazionala du; beraz, ikasle askoko hiria da. Tamainari dagokionez, San Inazio bezain handia da.

Zelan moldatzen zara hizkuntzarekin?

Etorri aurretik pentsatzen nuen suediera erabiliko zutela, baina baita ingelesa ere. Agian hiri handiagoetan horrela da, baina hemen dena da suedieraz. Hasieran oso zaila egiten zitzaidan umeekin komunikatzea, 10 urterekin hasten baitira ingelesa ikasten eskolan.

Bi hilabeteren ondoren uste dut nire azentura egokitzen ari direla. Gainera, suediera ikasten ari naiz; proiektuaren barnean sartzen zaizkigu hizkuntza-orduak.

Zerk harritu zintuen gehien bertara heldu zinenean?

Musikorik ez eramateaz gain, hiria basoz eta lakuz inguratuta egoteak. Pelikuletako paisaia ematen du. Asko gustatzen zait paisaia natural hori etxetik gertu izatea.

Erraza egin zitzazu bertako bizimodura egokitzea?

Bueno... Eskertzen dut uda bukaeran etorri izana eguzkiak pixka bat gozatu ahal izateko. Orain, arratsaldeko 15:30ean gauz egiteaz gain, egunean zehar ez da eguzkia ateratzen. Bestalde, lan egiteko modua oso desberdina da, oso lasaia dira eta estresak ez du kapidarik haien bizimoduan.

Oso desberdina da Euskal Herriarekin alderatuta?

Euskal Herrian euria egiten duen arren, ohituta gaude bizimodu soziala kalean egitera. Hemen bizitza gehiena etxeetan edota kirol instalazioetan egiten dute; beraz, zailagoa da jendea ezagutzea. Bazkal eta afal-

orduak ere moldatu behar izan ditut: 11:30-12:00 bitartean bazkaldu eta 17.30ean afaldu.

Nolako egoera dago Koronabirusarekin?

Suedia izan da konfinamendurik behartu ez duen Europako herrialde bakarrenetarikoa. Ez dute musikorik erabiltzen, bi hilabete hauetan asko jota hiru pertsona ikusi ditut jantzita. Orain kasuak igotzen ari dira, martxoan baino txarrago daude. Neurri zorrotzagoak ezartzen ari dira pixkanaka, gobernuak aholkuak botatzen ditu eta enpresa, departamentu eta pertsona bakoitzak haren erabakiak hartzen ditu, haien ongizatea bermatu eta kolpe ekonomikoa hain gogorra izan ez dadin. Biztanleen erantzukizunean konfiantza dute.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Giza dibertsitatea, gazteek unibertsitatean sartzeko dituzten erraztasunak eta paisaia.

Eta gutxien?

Individueltasuna eta iluntasuna, eguzki argirik ez egoteaz gain, ia ez dago farolarik kaletik. Motxilan beti daramat linterna bat.

Zer duzu faltan?

Badakit, orain COVIDagatik zuek ere ezin duzuela egin; baina, etxetik atera eta taberna batean pintxo bat hartzeak ez du parekorik!



Arkotxagane baserriko Ainhize, Orzuri, Maite eta Joseba

ARKOTXAGANE BASERRIA, EHUN URTEKO GAZTEA

Gure datuak zuzenak badira, Arkotxagane Deustuan eraikitako azken baserri da. Orduan ehundik gora ziren gure herriko baserriak. Mende bat geroago, dozena bat baino ez dira. Eta azken ehun urteotan etengabe familiaren bizileku izan direnak aitatzen hasi ezker, Arkotxagane eta beste baten bat baino ez. Lehenengo mende honen historia PREST!eko irakurleekin partekatu nahi dute. Bagoaz?

Testua: Hektor Ortega

Bista ederrak dauzka Arkotxagane Bilbo gainean. Artxanda aldean dago, Pikotamendiko magalaren erdian, Jesús-María ikastetxearen ondoan. Apur bat beherago Ibaizabalen bila jausten den Arkotxa erreka xumearen trokari begira eraiki zuten, ohi bezala atzealdea ipar-mendebaldeari emanda, eguzki orduak ahalik eta ondoen baliatzeko eta enbatez babesteko. Ur-xirripa apal hori esanguratsua da guretzat, hori baitzen Deustua eta Begoñaren arteko muga.

“Deustuko akabukoak gara gu”, esan zigun euskara ederrean etxekoandre Teresa Gorostiolak orain dela hogeitun urte PREST!erako baserrien gaineko erreportajea egitera hurreratu gine-

nean. “Ni Deustuko San Pedro elizan bataiatu ninduten”, esan digu orain Maite Lujua, haren alabak. Arkotxagane hartu gaitu, senar Joseba Anuzita eta alaba Ainhize eta Orzurirekin. Baserriko hirugarren eta laugarren belaunaldia dira.

Arkotxagane eraiki zutenean Deustua udalerrria zen. Bost urte geroago gauzatu zen anexioa. Sasoi hartantxe, herriko azken udal idazkariak, Jesus Gaztañagak alegia, idatzi zuen Deustuak luzaroan eutsiko ziola bere baserri itxurari, “baserri asko daudelako”. Baina bazuen susmo txarrik, eta, badaezpada, ondokoa erantsi zuen: “Inoiz desagertuko balira, hona hemen euren izenak”. Hirurogeita sei izen idatzi zituen, baina gehiago zirela zehaztu zuen.



Arkotxagane 2002an

Desagertu egin ziren, bai. Esan legez, gaur egun dozana bat baino ez dago, ia denak Artxanda gainean. Eta iraun dutenen artean dago, hain justu, baserrietan berriena: Arkotxagane. Izan ere, 1915 urte aldean Manuel Chalbaud Errazkin enpresariak etxalde zabalak erosi eta osatu zuen Deustuan. Ibaizabalak ondoan hasi, Kabako etxeen alboan, eta Artxanda gainerainoko eremua zen. Behaldez beretzako jauregia atondu zuen, Aldabe. Finkako gainerako eremuetan baserri bi altxarazi zituen, Barazgoiti (gaur egun Jesús-María ikastetxea dagoen lekuan baino apur bat beherago) eta Mendiburu, Pikotamendi edo Zarandoa esaten zaion Artxandako tontorrean bertan.

Hasierako plana baserri bi baziren, azkenean hiru eginarazi zituen. “Gure aititeak Chalbaudentzat egiten zuen lan -kontatu digu Maitek-, eta ezkontzekotan zegoenean

esan zion lana utzi egingo zuela, han ez zeukalako familia hazteko modurik. Orduan Chalbaudek esan zion etxea egingo ziola”. Esan eta egin. Aitite hura Hilario Gorostio-la zen eta Canuta Zarragarekin ezkontuta, Arkotxagane egin berriari hasi ziren bizitzeko, erreteratu, 1920an. Hala ere, ez ziren baserrietik bizi, Hilariok Chalbaudentzat lanean segitu zuelako. Baina etxea baserria zen eta inguruetan lursail txikia hartu zuten. “Baserriko aurrealdea, hala beheko pisua nola goikoa, etxebizitza zen. Atzealdea, berriz, beheko pisua korta eta goikoa lastategia”, azaldu du Josebak.

Canuta Zarraga 1935ean hil zen. Hilario seme-alaba birekin gelditu zen. Une gogorrenak, segurutik, 1936-37koak izan ziren. “Alde batekoak eta besteak etortzen ziren Arkotxaganera jatekoak konfiskatzera. Gure aititeak txarria hil eta txarriki guztiak

“Arkotxagane eraiki zutenean Deustua udalerrria zen. Bost urte geroago gauzatu zen anexioa.”

Kutxabank
EUSKARALDIArekin

GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN

kutxabank



2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra



Arkotxagane 1983an.

bidoi baten sartu eta erreka azpian egindako zuloan ezkutatu zituen. Gero gauaz joaten zen eta behar zuena hartzen zuen, inork ikusi barik”, gogoratu du Maitek. Bonbardaketak izaten zirenean, etxetik beherago zegoen tunel baten babesten ziren. Artxandako bataila gogorretik, oster, onik eta osorik atera ziren, hala etxeokoa nola baserria.

Hilario 1957an hil zen, baina ordurako alaba Teresa Gorostiola Etxebarriko Migel Lujuarekin ezkondu eta Arkotxaganen erreleboa hartuta zegoen, eurak ere maizter. Errenta San Tomas egunean ordaintzen zioten ugazabari. Sasoi hartan Migelek Matikoko lantegi baten egiten zuen behar eta Teresak baserriko lanak egiten zituen. “Gure ama sasoi hartan Ciudad Jardín aldera astoekin joaten zen esnea, arrautzak edo barazkiak saltzen”, kontatu digu Maitek. Ortua ez ezik, behiak, txerriak, oiloak... eduki zituzten. “Behiak 1980 urte aldera arte, gutxi gorabehera. Txerria hiltzera, berriz, Montaño txakolindegiko Juanjo etortzen zen”, aipatu digu Josebak.

Orduan Arkotxaganetik bidea zegoen Kabarraino, Deustuko Unibertsitatearen ondoraino,

alegia, jaisteko. Baina hurrago zegoen eta joera gehiago zeukaten Ciudad Jardín, Matiko eta Uribarri aldera. Eskola ere, han. Miguelek eta Teresak seme-alaba bi eduki zituzten, Mikel eta Maite. 1950eko hamarkada hartan Bilboaldean ez zegoen euskararentzako girorik, errepresioa eta gorrotoa baino ez. “Mikel ni baino zaharragoa zen eta eskolan euskaraz egiten zuenez, laster baten esan zieten gure gurasoei niri ez egiteko euskaraz”, kontatu digu Maitek. Ondorioz, etxean ikasi ezinik eta kalean eta eskolan debekatuta, hizkuntza galdu zuen. Euskararen



JOKOTEKNIA
BIDEO-JOKOEN III. EUSKAL JARDUNALDIA

jokoteknia.eus

AZAROAK, 28 / 09:45-14:00 LARUNBATA

STREAMING BIDEZ EMANGO DA

Azkue Fundazioa

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:





katebegi ahulena da Arkotxaganen, baina katea ez zen eten. Arkotxaganek euskarari eutsi dio eta belaunaldi berriak euskaldunak dira.

Chalbaudtarrek mojei saldu zieten finka osoa. Lekaimen aginduz, behealdeko Aldabe txaleta eraitsi eta etxeak eraiki zituzten. Erdialdean, Barazgoiti baserria baino apur bat gorago, Jesús-María ikastetxea egin zuten. Eta Arkotxaganekoek mojen errentero segitu zuten, harik eta 1989an baserria eta lur txatal bat erosi zieten arte. Orduan, lehenengo aldiz, etxea zaharberritzeari ekin zioten, atalka: teilatua, beheko pisua eta azkenik, goiko solairua, 1997an. Horrela ikusten dugu gaur, bere apalean dotore eta txukun. Hori bai, bidea ez da samurra izan. “Urteetan -kontatu digu Maitek- etxean ez zen argindarrik egon, Chalbaudek ez zuelako paisaia itsusten duten argi-zutoinik ikusi nahi”. Mojek ikastetxea egin ostean lortu zuten argi elektrikoa etxeraino eramatea. Ez argirik, ezta ur hornidurarik ere 2000. urtera arte. “Etxearen atzealdean ur-biltegi bat dago eta bertara zisternetan ekarri eta bertatik hartzen ge-



nuen. Gure amak lixiba erreka ondoko putzu baten ere egin izan zuen”, gogoratu du Maitek.

Teresa Gorostiola 2004an hil zen eta handik gutxira, senar Migel (2005). Harrezkero, Maite eta Joseba dira Arkotxaganeko bizilagunak.

Berbetan gaude, etxe ondoan, Bilbo gure oinetan. Garai bateko auzokideen izenak ere atera dira solasaldira, dela Mendiburu edo Pikota baserriko Mari, Barazgoiti edo La Vaqueriako Iñaki, eta beste Mari bat, oraindik magalaren erdian irauten duen dorretxekoa. Denak ziren Chalbaudtarren maizter. Horiek desagertu ziren, baita etxe inguruko arto eta gari sailak ere. Euren azpitik mendia alderik alde zulatu zuten, Artxandako tunela egiteko, eta orain jende andana ibiltzen da etxetik hur igarotzen den Axerrotabidetik. Baina hor dago Arkotxagane, Deustuko baserririk gazteena, Deustuko akabukoa, bizirik, pandemiak eragotzi duen mendeurrenaren ospakizuna noiz egingo. Laster izan dadila eta urte askotarako!

“Urteetan etxean ez zen argindarrik egon, Chalbaudek ez zuelako paisaia itsusten duten argi-zutoinik ikusi nahi”



Migel eta Teresa seme-alaba Mikel eta Maiterekin



LITERATURAZ BLAI

Basoan zaudela, Irati,
bilatu hiru animalia basati



Lagun asko dituzu, Oier,
hona hemen beste bat, Iker



Basoan zaudela, Irati,
bilatu hiru animalia basati



*Geria gora, gerria behera, Negua,
Gorputza daukazu malgua*

Horrelako errima atsegina idatzi diot, aurkezpen gisa, 1.mailako Neguari liburutegiko lehen saioetako batean. Eta Neguak irribarre zabala eskaini dit.


*Eguna serio pasa duzu, Unai,
Irribarre egin eta jarri alai*

Unaik berea entzutean ere, irribarre gozoaz adierazi du bere poztasuna eta lagunei begiratu die. Horrela, joan naiz

irakurtzen ikasle bakoitzari bere izenarekin egindako errimatxoak eta denak poztu dira. Horixe zen nire helburua: hizkuntza bizia eta gozagarriaz belarriak asetzea, irribarreak askatzea, hizkuntza maitaraztea.

Ez dago beste biderik eta, hizkuntzak badu bere baitan maitemintzeko sugarra eta irakasleok ikasleei horixe eskaini behar diegu:

*Zu zara zeruan, Ilargi,
Gure amona mantalzuri argi*



Aitarekin gosaltzea gustatzen zait niri
 Badugu etxe txiki bat,
 eta etxe txikian zulo handi bat,
 eta zulo handian bizi da sagu txiki bat,
 ta sagu txikiak etsai du katu handi bat,
 eta katu handiak badu lepoan kaskabi-
 lo txiki bat,
 eta kaskabilo txikiak ateratzen du hots
 handi bat,
 eta hots handiak esnatu du txakur txiki
 bat,
 eta txakur txikiak egin dio saguari me-
 sede handi bat...

-Badakit, aita, txakur txikiak hozka egin
 dio katu handiari.

Mitxel Murua

Eta zer diostazue mirari honen aurrean?
 Lehengo mailako umeez erraz ikasi dute
 hau buruz eta konturatu gabe ipuintxo
 honek duen aberastasun gramatikala
 euren buruetan geratu da. Egin daite-
 ke nolabaiteko hausnarketa gramatikal
 irakurritakoa ikasi ondoren? Lehengo
 mailan? hirugarrenean?

Eta batez ere, gozatu ahal izango dugu
 guk irakasleok honetaz eta hurbilduko
 ditugu gure ikasleak altxor honetera?
 Guk ez badugu egiten, nork egingo du?

Gazteleraz ere, ugaritasuna dugu literatu-
 ran hizkuntzaz gozatzeko. Hona hemen
 Ekaré argitaletxeak kaleratutako Aquiles
 Nazoaren *La ratoncita presumida* liburua-
 ren pasarte bat:

*Había entre los ratones
 Que allí nacieron después
 Una ratica más linda
 Que la rosa y el clavel.
 Su nombre no era ratona
 Como tal vez supondréis,
 Pues la llamaban Hortensia
 Que es nombre de mujer.*

Ipuin osoa irakurri eta gero, ikasleak gai
 dira esateko hizkuntza hori ez dela eurek
 erabiltzen dutena eta berezitasun hori
 aintzat hartzen dute. Maskara aurpegi au-
 rrean daukagula, kosta egiten zaigu ozen
 irakurtzea, komunikatzea, baina merezi
 du gure gelak literaturaz blai izatea.

*Gure aitonari belarri bat zitzaion handitu
 eta bestea, alderantziz, txikitu.
 Handiaz entzuten zituen izarren albisteak;
 txikiak, berriz, atomoen txisteak.
 Entzundakoarekin egunkari bat zuen
 esbribitu.*

Juan Kruz Igerabide



RAMAL DE OLABEAGA, ERRIBERARAKO BIDEA (1860)



Deustuko planoa. 1923 urtea.

Testua:
Hektor Ortega

Erdaraz Ramal de Olabeaga esaten ziotena zer zen, nola sortu zen eta zergatik jarri zioten izen hori azaltzera gatoz. Horretarako, XIX. mendearen erdialdera jo behar dugu, Bizkaiko bidegintza errepidegintza bilakatu zen arora.

XIX. mendean, Bizkaiko barne merkaturak bizkortu, batu eta hazkunde ekonomikoa sustatu guran, foru agintariek errepidegintzari ekin zioten. Joseba Agirrezkuenagak ikertu du arlo hau ("Bizkaiko errepidegintza", 1987), eta, bere lanean nabarmendu zuenez, XVIII. mendean hasi bazen ere bide berriak eraikitzeko politika (Gaztelatik Bilbora zetozen merkantziarako bidea eginda), XIX. mendearen lehenengo erdialdean bilakatu zen Bizkaiaren eginbiderik nagusia. Beti ere portuak eta barrualdea lotzeko asmoz, Bilbo-Durango-Elorrio, Bilbo-Bermeo, Bermeo-Durango, Lekeitio eta Ondarroarainoko errepideak eraiki zituzten, besteak beste.

Bide berri horietako ezaugarri zen gurdietarako pentsatuta zeudela. Alegia, nahikoa zabalak eta egokiak zirela merkantzia garraioa egin behar zuten gurdi handiak bertatik eroso ibiltzeko. Bide zaharrek, berriz, askotan ez zuten aukera hori bermatzen eta, horren ondorioz, merkantziak mando-multzoetan bidaltzen zituzten, mandazainen ardurapean.

Behin bide nagusiak eginda, Diputazioak bigarren mailako errepideak eta auzobide nagusiak eraikitzeko planaren ardura hartu zuen.

1856ko Batzar Nagusietan, Deustuko ahalduen Martin Ajaganek eskaria plazaratu zuen. Sasoi hartan Bilbo-Plentzia errepidea egiten ari ziren. Bide hori Deustutik igarotzen zen (gutxi gorabehera, gaur egungo Unibertsitateen etorbidea-Ramon y Cajal-Enekuri) baina deustuarrak ez zeuden pozik. "Urtean 20.000 erreale ordaindu behar dugu lan hori finantzatzeko baina herriari ez dio ia mesederik egiten", argudiatu zuen Ajaganek. Zer eskatu zuen? "Deustuko elizatik Olabeagako plazaraino joango den gurdibidea", azaldu zuen. Horrela, argudiatu zuen, herriko alderdirik populatuena eta Bilbo-Plentzia errepidea lotuta geldituko lirateke. Gomutan eduki Olabeaga hori Deustuko Erribera zela.

Batzar Nagusiek Bidegintza batzordera bidali zuen eskabidea eta honek Diputazioari helaraztea proposatu zuen. Hala egin zuten. Urte bi geroago, 1858ko ekainean, alegia, Diputazioak txostena eskatu zion Bidegintza batzorderari. Eta honek ez egiteko proposatu zuen, ez zituelako ezarritako baldintzak betetzen eta gainera, "gaur egun Olabeagako kaia zaharberritzeko lanak egiten ari dira Erreginaren Gobernuaren lepotik". Diputazioak ebazpena bere egin zuen.

Bigarren ahalegina

Ezeta jaso eta berehala, uztailearen 3an, Deustuko Udalak, Alejandro Rodriguez alkatea buru, eskabidea berritu zuen. Rodriguez inoiz agertu da aldizkari honetan. Armadorea, merkataria, belagilea eta saltsa askotako perexila izan zen. Orduan argi eta garbi azaldu zuen Deustuarentzat hain kostu handia zeukan Bilbo-Plentzia errepideak ez zuela ezertarako balio “mientras no se ponga en comunicación, por medio de un ramal, con el barrio de Olaveaga, centro de población, punto de fondeadero de buques, que teniendo a su intermediación un astillero de primer orden, con otras oficinas de artefactos de jarcia, y demás enseres necesarios para habilitar las embarcaciones, constituye a la animación, el movimiento y la vida de la anteiglesia”.

Aipatu zuenez, “abriendo el ramal por camino antiguo, que baja del sitio llamado de Abasolo [Ibarrekolanda] a la plazuela de Olaveaga no escederá de dos mil duros el coste de esta vía”, Deustuarentzat larregi baina Bizkaiarentzat ezer gutxi. Eta bide berria ez ei zen bakarrik Deusturako izango; baita Bizkaiko parte handi baterako be, Getxo, Larrabetzu eta Bakioraino, zeren herri horiek “se ven precisados a conducir al puerto de Asua los materiales de construcción para de allí transportarlos al astillero de Olaveaga por la ría a falta de dicho ramal, originandoseles de este modo dobles gastos, molestias y trabas”.

Ikusten dugunez, “ramal” gora eta “ramal” behera. Harrez gero, horrela ageri da dokumentazioan, Bilbo-Plentzia errepidearen “adar” bezala. Aste bi geroago, harrigarria, Gernikako Batzar Nagusiek baietza eman zioten Deustuko Udalaren eskabideari. Deustuarren argu-

dio guztiak bere egiteaz gain, beste bat erantsi zuten: “es indispensable en cuanto que con motivo del bote de buques desde el espresado astillero a la ría, queda con frecuencia interceptado el paso de dicha carretera por causa de los puentes que para esa operación suele haber que levantar”.

Batzar Nagusiek onartzea eta proiektua gauzatea ez zen zorro bateko uruna. Irailean Rodriguez alkateak idazkia bidali zion Diputazioari, proiektua martxan jartzeko eskatuz. Urriaren amaieran Diputazioak Juan Blas Hormaetxe arkitektoari agindu zion bidearen nondik norakoa zehazteko. Urtebete geroago, 1859ko urrian, Rodriguez eta bere zinegotziek atzera eskatu zuten proiektua abiarazteko. Eta 1860ko maiatzaren 12an, ta txan!, Juan Blas Hormaetxek proiektua aurkeztu zuen. Ibarrekolandatik barrik, Done Peri (San Pedro) elizatik egin zuen Olabeagarako lotura, Madariaga auzotik. Gutxi gorabehera, gaur egunera etorrita, Rafaela Ibarrratik jaitsi, Madariaga etorbidea hartu Basabeko Laubidera (geroago Gormutuen ikastetxea eraiki zuten lekura) eta bertatik, artez, Olabeagako plazatzora.

Behin proiektua eginda, xehetasun txiki bat falta zen: dirua. Ikusita proiektua pentsatu baino garestiagoa zela, Diputazioak 40.000 erreale ordaintzeko prest zegoela esan zuen eta Deustuko Udalak gainerakoa bere gain hartu zuen. Azkenean 60.000 errealeko inbertsioa egin zuten. Begoñako Jose Antonio Mezo kontratistak 1860ko urrian ekin zion lanari eta 1861eko uztailean amaitu. Bideak Plentziako errepidearen zabalera berdina zeukan, alegia, “doce pies para el firme y ocho para ambos paseos, o sea un total de veinte pies” (5,57 metro). Luzeera, berriz, 6.156 oin, alegia, 1,75 km.



Halderapeño
euskal kultur gunea

www.halderapeño.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



IRAKURTZETIK BERBA EGITERA

Irakurketa erraza testuak idazteko formatu bat da, ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonen informazioa irisgarri helarazteko. Euskadi Irakurketa Erraza elkarteak antolatuta, Deustun badago talde bat teknika horrekin idatzitako liburuak irakurri eta mintzamina lantzen duena. Partaideekin eta gidariarekin egon gara honen berri gehiago jakiteko.

Irakurketa erraza formatu bat da, edozein arrazoi medio irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen testuak erraz ulertu ahal izateko pentsatua. Euskadi Irakurketa Erraza elkarteak 2012an sortu zen, teknikari bultzada emateko asmoz eta 2017tik liburuak irakurri eta horien inguruan eztabaidatzeko taldeak antolatzen dituzte Bilbon. Aurten hiru talde dituzte martxan, laugarrena abiarazteko aukerarekin, eta horietako bat Deustuko Liburutegian elkartzen da. Partaideek eta taldearen gidariak kontatu digute zer egiten duten saioetan.

Aldi baterako zailtasuna duen jendeari dago zuzenduta talde hau, euskara ikasten ari den edo euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duen jendeari, hain zuzen. Taldearen helburua “euskaraz irakurtzearen laila suspertzea” eta euskara praktikatzea da, eta, horretarako, liburuak erabiltzen dituzte. Urriaren 21etik azaroaren 25era Montse Floresen *Rif mendietako ura* landu dute, berez, formatu horretan idatzita dagoena.

Partaideek kontatu digute gustura daudela, “euskaraz praktikatzeko eta hitz egiteko lotsa kentzeko modu

erosoa” aurkitu dutelako. Denek antzeko maila dute, taldeak funtzionatzeko ezaugarri inportantea Lina Ugarte koordinatzailearen iritziz. “Metodologia hau erabiltzeko ez da maila konkretu bat izan behar, baina bai partaide guztiek antzeko maila izatea, izan ere, mintza praktikatzen aitzakia izaten da liburuak”, diosku. Bera irakasle baino gehiago, moderatzailea da: ez du zuzentzaile papera betetzen, elkarriketak bideratzen laguntzen du soilik.

Tentu handiz idatzitako liburuak

Edozein testu egokitu daiteke Irakurketa Errazera. Hainbat ezaugarri zaindu behar ditu: edukia, forma edo diseinua eta hizkera. Diseinu garbia izan behar du, espazio txuri askorekin. Serifa gabeko tipografia erabiltzen du, 12 puntutik gorako tamainan eta lerro arteko tarte handiarekin. Esaldi guztiak puntuarekin amaitzen ditu, eta ez ditu orri batetik bestera moztzen. Gainera, esaldiak mozteko irakurtzean arnasa hartzeko egiten dugun etena baliatzen du, esaldiak euren forma naturalean moztuz. Azkenik, hiztegi erraza, baina aberatsa erabiltzen du, irakurleen-tzako erakargarria izateko.



BILBOKO AZKEN ARTISAU-EURITAKOAK

artikulua
Bilboko euritakoak



Paragüería Bilbainako Agustin Hervilla

Martxoan, konfinamendua ezarri baino egun gutxi lehenago, hartu zuen Agustin Hervillak Paragüería Bilbaina euritako-denda mitikoa ixteko erabakia. Pena handiz hartu ere, artisaueuritakoek erakusleihu garrantzitsu bat galduko baitute Deustun eta munduan.

Paragüería Bilbaina enpresaren hiru bazkideetako bat da Agustin Hervilla. 16 urterekin hasi zen Alde Zaharrean duten fabrikari lanean, eta duela urte batzuk Deustuko saltokiaz ere arduratzen da. Orain, denda itxi eta lantegia mantentzea erabaki dute. Euritakoak egiten jarraituko dute, baina kanpoan kanpo saldu beharko dituzte 'Bilboko euritakoak'.

Erabaki gogorra izan da Agirre Lehendakariaren etorbideko 24. zenbakian ia 70 urte daramatzan denda ixtea, baina beste erremediorik ez dute izan azken urteetako galerak ikusita. "Nire bizitzaren parte bat da, pentsa zein gogorra den niretzat denda ixtea, osasuna ere galdu dut urte hauetan", diosku Agustin Hervillak atsekabetuta. "Dirurik irabaziko ez banu, denda zabalik mantenduko nuke, baina urteak daramatzagu galerekin eta horrela ezin dugu jarraitu".

Erabakia hartu eta egun gutxira martxoko itxialdia etorri zen; ezin izan zuten likidazio kanpainarik abiatu. Orain bai, ari dira azken euritakoak saltzen eta jendea gerturatzen ari da Bilboko azken artisaueuritakoak eskuratzera, baina sasoi lehorrak ez du mugimendu askorik ahalbidetu.

Gezurra badirudi ere, Bilbon gero eta euri gutxiago egitea da dendaren itxiera bultzatu duen arrazoietak

bat. Hervillaren esanetan, azken urteetan klima asko aldatu da eta jada ez du lehenago euririk egiten. Horretaz gain, janzteko ohituren aldaketak, internet bidezko edota kaleko salmentak, zein kontsumo joerak -gero eta merkeago erosi, nahiz eta produktu bera askotan erosi behar-, ataka larrian jarri dute negozioa.

70 urteko historia bizia

Euritakoak, eguzkitakoak eta osagaiak saltzeaz gain, konponketak ere egiten dituzte dendan. Hori da, akaso, bezero leialek gehien estimatzen duten zerbitzua. "Euritako on bat erostea zapata edo txamarra on bat erostea bezalakoa da, 20 urte iraungo dizu". Bezeroek euritakoak konpontzen jarraitu dezaten, Alde Zaharrean duten fabrikari sekzio berezi bat irekitzeko asmoa dute, "horrela ez dute euritakoa bota beharko hagaxka bat apurtzerakoan".

Denda bera bezain harrigarriak dira Paragüería Bilbainan saltzen dituzten euritakoak. Egur naturalarekin edo larruarekin egindako heldulekuak, belus-oihaldunak... la 200 euro arteko artelanak dituzte. Saltokiaren altzariei erreparatuz gero, berehala ohartuko gara lekua Deustuko historia bizia dela: egurrezko altzariak, altzairuzko lanpara erraldoia, sarrerako kartel zaharra... Beste garai batera eramango gaituzte atea gurutzatu bezain pronto, hemendik gutxira gure gogoan bakarrik egongo dena.

berbetan

MIKEL AGUIRRE RUIZ DE GOPEGUIrekin

Arkeologo paleolitista

“Gozatu egiten dut artisau-lanean,

Gasteizko estudio berrian elkartu gara Mikel Aguirre arkeologo deustuarrekin. Etxean gordeta izan duen materiala bertara eramaten aurkitu dugu, izan ere, etxea izan du esperimentazio eta ikasketa leku orain arte. Urteak daramatza arkeologia esperimentalean lanean, Goi Paleolitikoko erregistroa aztertzen.



baina ikertzea da nire asmoa”

Arkeologoa zara, zein da zure espezialitatea?

Goi-Paleolitiko teknologia litikoa. Paleolitista naiz, Paleolitikoko arkeologia azterzen dut.

Zeintzuk dira eskuartearen dituzun proiektuak?

Unibertsitate irakaslea naiz UNEDen. Horrez gain, 1995etik 2008ra Antoliñako koba (Gautegiz Arteaga, Bizkaia) induskatzen egon naiz. Orain bertan lortutako informazio guztia prozesatu, digitalizatu eta publikatu behar dut. Denbora asko ematen dut horretan, eta tesia amaitzen nabil. Horiek dira nire egungo proiektu nagusiak. Bitartean, hitzaldiak, ikastaroak eta horrelako kontuak eman ditut.

Nola heldu zara honaino?

Betidanik gustatu izan zait arkeologia. Gaztea nintzenean igandeetako ajea Done Petri plazan pasatzen nuen silexa zizelkatzen. Garai hartan Lanbide Heziketa ikasten nuen eta bitartean arkeologiaren munduan sakontzen hasi nintzen. Azkenean, UBI egin eta 1987an Gasteizen Arkeologia ikastea erabaki nuen.

Ordurako aritua zinen harri-lanketan.

Arkeologia ikasketak hasi bezain laster, 4. eta 5. mailako ikasleei zizelkatze ikastaroak ematen nizkien. Karrera egitea tramite bat zen niretzat benetan egin nahi nuena egin ahal izateko, arkeologia, hain zuzen. Unibertsitatean hasi baino lehen, EHUko katedratikoa zen Ignacio Barandiaranekin

induskatzen ibilia nintzen. 1982an Frantziara labar-arte ikusteko antolatatu zuten bidaia batean ezagutu nuen. Iñaki Zarzugazak gonbidatu ninduen, bera ere deustuarra da.

Zerk piztu zizun arkeologiarekiko jakin-mina?

Ez dakit. Ziurrenik, herri primitiboekiko dudan enpatiak edo gaztetan pelikuletako indioek sorrarazten zidatenak piztuko zidan. Ni beti nengoen indioekin, inoiz ez bakeroekin. Enpatia horrek antropologia liburuak irakurtzen hastera bultzatu ninduen. Malinowski, Lévi-Straus etab. irakurtzen nituen, Historiaurrearekin topo egin nuen arte, eta hortik abiatuta Antropologia Prehistorikoan zentratu nintzen.

Nola hasi zinen zizelkatzen?

Kuriositatez. *El primer americano* (C. W. Ceram) liburuan argazki bat topatu nuen, Historiaurreko ehiztari amerikarrei erreferentzia egiten ziona. Klovis punta batzuk ageri ziren, 10000 urtekoak, eta liluratuta geratu nintzen. Orduan oso galdera sinplea egin nion nire buruari: nola egiten dira ehiztarien lantza punta hauek? Haritik tiraka hasi nintzen, liburuak bilatzen eta nire burua dokumentatzen, baina praktikatzeko silexa behar nuen.

Nondik hartzen zenuen?

Banekien “Pedernales” (Sukarrieta) izeneko herri bat zegoela, eta izenagatik silexa

“Gazte nintzenean igandeetako ajea Done Petri plazan pasatzen nuen silexa zizelkatzen”

▷ ▷ SAKONEAN

“Ezin da edonon zizelkatu, sortzen diren hondarrak ezin direlako material arkeologikoarengandik bereizi”

Zeintzuk dira zure erreferenteak?

Historiaurrean, zientzia gisa, Ignacio Barandiaran. Berarekin trebatu naiz eta niretzako dudarik gabe erreferentea da lan egiteko zuen moduagatik, bere energiagatik, ekoizteko zuen gaitasunagatik... Hala ere, egia esan, ez naiz oso mitomanoa, ikonoklasta naizela esango nuke, nire kabuz formatu naizelako.

Zer behar da zizelkatu ahal izateko?

Ezagutza, gaitasuna, materiala, tresnak, konstantzia eta pazientzia handia izan behar dira. Ez bazaizu gustatzen, ez du inolako zentzurik. Nik lehen aldiz zizelkatzen ari den pertsona bat ikusten dudanean, bost minututan jakin dezaket ea ondo zizelkatzera helduko den edo ez, baina teknologia simplea jende gehienak egin dezake. Materiala ere behar da, has-teko nahikotxo, oso arin txikitzen delako.

Zizelkatzen hasi nahi duen norbaiti zer esango zenioke?

Lehengai-iturriak eskasten ari direnetik ez dut jendea zizelkatzen hastera animatzen, salbuespenak kenduta (barreak). Norbaitek benetako interesa badauka, bere kabuz hasteko esango nioke. Nik horrela egin nuen, ezer jakin gabe dokumentatzen hasi nintzen eta nire kabuz ikasi nuen. Materiala lortzeko iturri bat bilatzeko esango nioke, eta zentzuz jokatzeko. Ezin da edonon zizelkatu, sortzen diren hondarrak ezin direlako material arkeologikoarengandik bereizi. Mendian zizelkatzen duzunean aztarnak sortzen ari zara, eta gertatu izan da horrelakoak aztarnategi gisa kalifikatzea.



egon behar zuela pentsatu nuen. Eta horrela izan zen! Bertara joan eta silexa topatu nuen. Geroago, banekienez Barandiaran Barrikan silex-tailerrak ematen egondakoa zela, bertara joan, estratuak ikusi eta kostaldera bajatu nintzen. Horrelaxe aurkitu nuen Kurtziako (Barrika) silex-azaleratze gunea 80ko hamarkadan, Kantauriko erlaitz osoko silex-azaleratze onena. Inori ez zitzaion lehenago interesatu. Handik silexa hartzen nuen eta etxean praktikatzen nuen.

Zer erremintarekin?

Paleolitikoa erabiltzen zituzten tresna bertsuekin, izan ere, material guzti honen erreferente arkeologikoak daude: orein-hagak, zizelak, konpresoreak, harrizko mailuak, ezpelezko mazoak... Tamaina desberdineko lau harrirekin gauza asko egin daitezke. Kobrea erabiliz metalen garai hasierako teknikak praktikatuta daitezke eta produktu sofistikatuagoak lortu.

Zer egiten duzu sortzen dituzun piezekin?

Batez ere Unibertsitateek eta museoek eskatzen dizkidate. Museoetarako ikus-entzunezko irudiak sortzen ere parte hartu dut. Altamirako kobara bazoaz, paleolitikoz jantzita ikusiko nazu harriak lantzen. Pelikuletarako atrezzoak ere egin dut. Baina, eskatu didaten gauzarik bitxia Mugaritz jatetxearentzako egin nituen

1000 silex xaflak izan ziren, duda barik. Bezeroek laban gisara erabiltzeko nahi zituzten.

Zergatik silexa eta ez beste harri bat?

Ohikoena delako, aldaera asko dituen arren. Badira harkaitz makalagoak, kuartzita, esaterako, baina lodiagoa da eta horrekin egin ditzakezun gauzak mugatuak dira.

Eta paleolitikoko gizakiek zergatik erabiltzen zuten silexa?

Ugaria delako eta harri gogorra delako, baina, aldi berean, hauskorra, eta horrek harri-ahoak ateratzeko aukera ematen du. Silexa baino gogorragoa topazioa, korindoia eta diamantea baino ez daude. Silexak altzairua eta kristala markatu ditzake. Modu sistematikoan landu daiteke, bilatzen den materiala lortu arte. Suntsikorra denez, gastatu egiten da, eta Neanderthalek euren tresnak gehiago konpondu ezin zituztenean, lurrera botatzen zituzten. Horrek arkeologok zoriontsu egiten gaitu, induskatzen ari garenean milaka silex zatitxo aurkitzen ditugunean. Egungo erregistro arkeologikoa haien zaborra zen.

Egun, jende askok lantzen du silexa?

Orain bai, baina lehen inortxok ez zuen hau egiten. Espainiar estatuan jende askok zizelkatzen du, eta Amerikako Estatu Batuetan izugarritzko industria dago piezak zizelkatu eta saltzen. Gezi-puntak egiten dituzte batez ere, baina xaflarik ez, nahiz eta hango erregistro arkeologikoetan aurkitu izan diren.

Zertarako zizelkatzen duzu zuk?

Piezak berreraikitzen ditut Historiaurrean zehar nola egiten zituzten ikusteko eta industria litikoak hobeto interpretatzeko. Gozatu egiten dut artisa-lanean, baina ikertzea da nire asmoa. Egiten dudanaren zati handi bat arkeologia esperimentalaren barruan kokatzen da. Prozesu teknikoak berreraikitzen ditut, erregistro arkeologikoa hobeto ulertzeko eta interpretatzeko.

Barrikara joaten jarraitzen duzu harri bila?

Bai, baina lehen baino gutxiagotan, ahalegin fisiko handia eskatzen duelako. Orain Zaragoza hegoaldeko Ebro ibarrera joaten naiz, eta noizbehinka Frantziara. Silexa gero eta urriagoa da, besteak beste, XVIII. mendearen amaierara arte material estrategikoa izan da, txinpartazko armak egiteko erabiltzen baitzen. Silex harrobiak ustiatzen zituzten neolitikoko erabiltzen zen teknika berberekin, haiek jakin gabe.

Zer beste silex ustiategi daude inguruan?

Trebiñun paleolitikoko garaiko silex-ustiategiak daude. Bertako silexa geologikoki aztertzen badugu, Ebroko bailara osoan aurkituko dugu. Araban Araiako mendilerroan baka-rik dago eta oso ustiatuta dago. Asturiasko, Kantabriako eta Euskal Herriko ustiategietan agertu da. Silexaren jatorria eta ezaugarri geologikoak aztertuz, Paleolitikoko gizakien mugimenduak berreraiki ditzakegu. Goi Paleolitokoan izan ziren giza mugimendu handienak. Ehiztariak eta biltzaileak zirenez, normala zen urtean 35.000 kilometro koadroko azalera mugitzea, Euskal Herriaren azalera adina.

“Prozesu teknikoak berreraikitzen ditut erregistro arkeologikoa hobeto ulertzeko eta interpreta-tzeko”



Proiektu berriz jantzia

Ortua lantzeko taldea, txalaparta taldea, bertsolaritza klaseak... proiektu berri ugari betea ageri da gaztetxeke egutegia. Ortua ez da proiektu berria, baina orain arte lantzen zuen kidak laga ostean, Deustuko gazteek aturrak hartu eta erreleboa hartu diote. Astero lanegunak jarri dituzte eta nahi eta ahal duena hurbildu egiten da lanera, momentuz asteazkenetan. Uzta jasotzean bildutakoekin egiteko hainbat ideia dituzte: lehendik ostiraletan antolatzen zuten jantokian bazkaria egiteko erabiltzea, barazki otzarak prestatzea, lurra lantzen dutenen artean banatzea... Baina, batez ere, ortua gazteek auzoan elkartzeko eta pandemia garaiotan ezberdin harremantzeko tresna bezala erabili nahi dute. Aipatutakoez gain, Gazte Lokaleko txapak eta orri markatzaileak jarri dituzte salgai, egungo egoerak euren jarduna eta diru iturriak mugatu dituzte, proiektua garatzen jarraitu ahal izateko.



Osasungintza eta zerbitzu publikoen alde


Urriaren 28an hasi ziren Euskal Herriko lehen arreta zentroetan Osasungintza publikoaren aldeko elkarretaratzeak egiten. Kontzentrazioak asteazkenero azaroaren 11ra arte zeuden deituta, baina, Deustu eta San Inazio mobilizazioekin jarraitzea erabaki dute, eta datozen asteazkenetan ere elkartzeko deia luzatu diete auzokideei. San Inazioz, gainera, azaroaren 7an manifestazioa egin zuten *Osasun publikoa indartu, eskubideak bermatu!* lelopean Elorrieta, San Inazio eta Ibarrekolandako Greba Asanbladak deituta. Zerbitzu publikoak indartzeaz gain, "etxe eta lan kaleratzeen etetea eta oinarrizko eskubideak murrizten dituzten neurrien eta salbuespen egoeraren etetea" eskatu zuten. Hurrengo asteetan ere, mobilizazio iraunkorarekin jarraitzeko deia luzatu dute.



PASEALEKUKO ROKODROMOA


Berriz ere obretan

Otsailaren 18an ireki zuten San Inazio eta Deustu kanal ertzetik batzen dituen pasealekua, urteak hesituta eman ondoren. Parke berriak dituen bi kilometro pasatxoetan hainbat eserleku eta ariketa fisikoa egiteko zenbait makina daude, baita eskalada horma bat ere. Hau gordeztzen duten hesiak, ordea, ez dituzte oraindik kendu. Auzokideek salatu dute pasealekua ireki zutenetik hainbat aldiz jarri eta kendu dituztela rokodromoko heldulekuak, bost aldiz gutxienez, azkenekoa azaroan. Pasealekua ireki zutenetik bederatz hilabete igaro dira, oraindik ez dute eskalada horma ireki eta bost bat aldiz konpondu behar izan dute.



Deustuko Jai Batzordeak diru bilketa kanpaina abiatu du

Martxoan jaiak hastear zeudela bertan behera utzi behar izanak zor ekonomiko handia ekarri dio Deustuko Jai Batzordeari. Egoerak hobera egin ez duenez, oraindik ez dute zorrari aurre egiteko biderik aurkitu. Irtenbide bila, azaroaren 28tik urtarrilaren 4ra bitartean Crowdfunding kanpaina bat egingo dute. Egun horietan zehar dirua biltzeko tresna desberdinak jarriko dituzte martxan. Alde batetik, itsulapikoa.eus plataformaren bidez kantitate ezberdineko diru ekarpenak egin ahal izango dira. Bestetik, hainbat saltoki laguntzaileetan itsulapikoak jarriko dituzte, bertan bonuak erosteaz gain, ekarpen ekonomikoa egin ahal izateko. Era horretan, zorra kitatzeaz gain, 2021eko martxoan egoerara egokituta eta beharrezko neurriak hartuta nolabaiteko jaiak antolatu ahal izatea dute helburu.

J. M^o Bastarrikak utzitako argazkia.

Urtea: 1960

Txema Luzuriaga

La Parra txakolindegia

Bi dira txakolinari euskal ezaugarri bereizgarria ematen dioten faktoreak. Alde batetik, iparraldeko haizetik babestutako eta hegoaldera begira jarritako lurra eta, bestetik, bertoko klima. Badirudi txakolinaren ekoizpena XIII. mendean hasi zela gure lurretan, nahiz eta mahatsondoan landatzearen berri XI. mendeko testuetan badugun.

Deustun txakolin produkzio handia zegoen, eta asko ziren elizateari izen ona ematen zioten ekoizleak. Gogoratzekoak dira Arbolagaña, Serapio Irusta, Miramar, Goiri, Rondoko, Txakoli Bilbao -La Salle ikastetxearen aurrean- eta aipatu gabe uzten ditudan beste hainbat.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
billbokoaldizkariak@gmail.com

ALA
TATTOO STUDIO
T X S
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



Optica
Avenda
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4



Yoki Berrri
Taberna
Good vibes!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintoreria
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu




artez
euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
APPLE App Store
ERRODOKO BARRUTIA GOBIERNO VASCO BFA BFB

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltea
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97



Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elekttrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


Nolako Gabonak espero dituzu?



**Irati
Deustu**

Ezingo gara familia bisitatzera joan eta bakoitzak bere etxean ospatu beharko ditu Gabonak, Bilbotik mugitu gabe.



**Eduardo
Deustu**

Besterik gabe pasatzea espero dut. Ez ditut Gabonak gustuko eta etxean ez gaude oso egoera onean.



**Maialen
Deustu**

Urteak aldaketa asko ekarri ditu eta Gabonak desberdinak izango badira ere, zoritxarrez kontsumo ohiturak mantenduko dira.



**Markel
Deustu**

Espero dut familiako kideak elkartu ahal izatea. Gu urtero Nafarroan elkartzen gara eta pena handiz hartuko nuke ezin joatea, baina uste dut ahalko dugula.



**Aritz
Deustu**

Ahal den neurriak familiarekin igarotzea espero dut, baina bereziak izango dira zalantza gabe. Lehen 20tik gora kide elkartzen baginen, aurten hurbilekoekin baino ezingo gara elkartu.



**Olatz
Deustu**

Gutziz desberdinak, hala ere, maite ditugunez inguratuta egongo garela uste dut. Imajinazioa baliatuko dugu eta Gabon sortzaileak izango dira.



harkua bete herna

>> GAZTEALDIA

8 EGUN BAINO GEHIAGO

Maite Sarasola Isazelaia Gaztealdian parte hartu duten 9 gazteetako bat da. Azaroaren 12tik 19ra bitartean euskara hutsean bizitzeko hautua egin zuten Euskal Herriko txoko desberdinetako gazte hauek. Maite Sarasola deustuarrak bere esperientzia kontatu digu.

Testua: Maite Sarasola Isazelaia

Ilusio handiz hartu nuen Gaztealdian parte hartzeko proposamena. Egia esan behar badut, ez da nekosoa niretzat 8 egunez euskara hutsean bizitzea; are gehiago, gezurra dirudien arren, egunak eta egunak ematen ditut, nik, euskara hutsean eta esfortzurik egin gabe. Badakit ia-ia anomalia bat dela Bilbo erdian hau gertatzea, baina, hala da.

Etxean euskaraz egin dugu beti, horrela izan da txikitatik eta ez zaigu bestela ateratzen. Lagunartean denek dakite euskaraz, ikastolan ikasi dugu eta. Egia da batzuei besteei baino gehiago kostatzen zaiela lehen hitza euskaraz botatzea baina, kuadrilletan ere azpikuadrillak egoten dira eta nik lotura handiago dut euskaldunenekin (ez dakit zergatik). Erdararako joera dutenek ere niri euskaraz egiten didate gehienetan edo badakite gaztelaniaz egin arren nik euskaraz erantzungo diedala eta erraz onartzen dute, ez dute erresistentziarik jartzen, eskertzekoa da.

Bertsolaritza dut gustuko eta izugarritzko aurkikuntza izan da niretzat bertsoaren mundua. Denok euskaldunak izateaz gain, euskaldun moduan kokatzen lagundu dit, segurtasuna hartu dut.

Bestalde, nik natural-natural bizi dudana badakit gehienentzat oso zaila dela eta horixe da hain zuzen ere aldatu beharko genukeena. Geure herrian geure hizkuntzan bizitzeko aukera ez litzateke aldarrikapen bat izan behar, ezinbesteko aukera baino. Denoi zor

zaigu euskaldun izatea eta euskararen mundua eza-gutzea, ezin digute aukera hori lapurtu, eta gazte gehieni lapurtu zaie.

Hain zuzen ere, horixe da Gaztealdiaren ekimenari egin nahiko niokeen ekarpena, gazteak animatu euskaraz bizitzera ahal den esparru gehienetan, benebenetan merezi du. Ez dut inor ezagutzen euskararen mundua ezagutu ostean erdaretara bueltatu denik.





 **Independentea. Burujabeon egunkari libre.**
Independentea.eus

Izen hori du sortu berri duten euskarazko hedabide digitalak. "Instituzio, alderdi, elkargo guztiekiko independentea" delako, eta, egileak "burujabeak direlako" jarri diote izena. Aurkezpen oharrean azaldu duten bezala, "orain arte zentsuratu zaizkigun ikuspegi horiek" ezagutzera ematea asmo du berripaperak. Izan ere, Berria egunkariak hainbat artikulu eta iruzkin zentsuratu izana jotzen dute proiektu berriaren txinpartatzat: "Egunkari nazional bakarreko hizkuntza honetan, albiste eta iruzkin guztiak norabide bakarrekoak izatea gaixoti samarra litzateke berez. Eta norabide hori eskubide guztien urraketa zuzitzen duen kontsentsu faltuaren aldekoa izateak benetako alarma dakar".

 **Atsotitz lehiaketa**

Iberba aholkularitzak eta Oskia Karrera argazki estudioak atsotitz lehiaketa antolatu dute atsotitzak eta irudigintza bultzatzeko, hauek biak uztartuta. Esaera zaharrak ez ezik, berriak ere sortzeko aukera dago, gaur egungo bizimoduak sortzen dituen egoera berriei egokitu eta daitezkeenak. Parte hartzaileek atsotitz bat irudi batean txertatuta aurkeztu behar dute abenduaren 31 baino lehen honako helbidean: 656 30 37 67 edo info@kukubat.eus. Irabazleak 100 euroko saria jasoko du. Telegram talde bat egin dute nahi duenak botoa emateko. Hiru hilean behin antolatu nahi dute lehiaketa eta horretarako 100 euroko sari bat emateko prest dauden entitate, enpresa edo saltokiak bilatzen ari dira.



 **Kontaketa erotikoen lehiaketa**
Kaixomaitia.eus

Kaixomaitia.eus euskaldunen harremanetarako webguneak ipuin erotikoen lehiaketa antolatu du bere hamargarren urteurrenean. Lanak abenduaren 21a baino lehen bidali behar dira eta urtarrilaren 20an jakinaraziko dituzte irabazleak. Zortzi obra sailkatuek Elkarren gastatzeko 100 euroko opari txartela bereganatuko dute; irabazleak ordea 1.000 euro jasoko ditu, bigarrenak 500 eta hirugarrenak 250.



REGGAE-RAP ERROMERIATIK METAL-RAP TALDERA

Bizkarrean urte bezainbeste etapa dituen taldea da Patxadaz. Duela sei urte elkarrekin jotzen hasi ziren arren, hainbatetan aldatu da, bai estiloari, bai partaideei dagokienez. Azken fasea borobiltzeko, abesti propioz osatutako diskoa atera berri dute, lehena batera.



Testua: PREST!

Argazkiak: Saúl Huerta eta Etchekoy **Azala:** Perrexila

Mikel Alvarezek (gitarra), Asier Cobosek (baxua), Jon Kortabitartek (bateria), Eneko Irastorzak (ahotsa) eta Mikel Del Barriok (ahotsa) osatzen dute egungo Patxadaz taldea. Beti ez da horrela izan, sorreratik taldekideak sarritan aldatu baitira. Txantxiku Aisialdi Taldeari zor diote hastapeneko kideak batu eta elkarrekin jotzen jarri izana. Dagoeneko taldean ez dauden hiru kideri euren aurkezpen jaietan jotzeko proposatu zieten, eta horrela hasi ziren Deustuko Gazte Lokalean entseatzen. “Kontzertu hori prestatu genuen eta taldea sortu zen”, azaldu digu Alvarezek. Gerora, beste kide batzuk batzen joan ziren, hasierako zazpikotea elkartu arte: Andrea Corrales (biolina), Markel Baroja (ahotsa), Urko Urrutia (trikitia), Eneko Irastorza (bateria), Mikel Alvarez, Mikel Del Barrio eta Asier Cobos. Reggae-rap estiloko erromeria gisakoa ziren orduan, bertsioak jotzen zituzten.

Urte batzuk eman zituzten horrela, baja eta etenaldi batzuk gorabehera, 2018an azken fasea hasi zuten arte, egungo taldekideekin. Jon Kortabitartek Irastorzaren lekua hartu zuen eta honek mikrofonoari heldu zion. Orduan hasi ziren abesti propioak sortzen, kontzertuetara bertsioak soilik ez eramateko. “Lauzpabost abesti egin genituenean diskoan pentsatzen hasi ginen, orain urte eta erdi, gutxi gorabehera”, azaldu digute.

Bide gazi-goza

Elkarrekin diskoa kaleratzea prozesu luzea izan da, astuna bezain aberasgarria. Del Barrioren-tzako “erronka pertsonal handia” izan da, kide bakoitza mundu musikal batetik datorrelako eta denak eroso zeuden puntua bilatu behar izan dutelako. Antzeko bizi izan du Cobosek bilaketa hori:





“Gure sormenaren puntu gorena bilatu dugu, inoiz ez dakizu noraino heldu daitekeen zure sormena, eta lagunekin errazagoa da”. Bidea gazi-gozoa izan da, ordea, baliabide urriak, grabaketa lantaldean aldaketak, eta konfinamendua tartean, asko luzatu zaielako. “Grabatzea oso astuna da, musikari askori ez zaie gustatzen estudioan sartuta egotea eta gu apur bat erre gaitu”, diosku Alvarezek.

Diskoa Iturribide eta Santutxu artean dagoen Mamba Beltza estudio autokudeatuan grabatu dute Lando Stonekin. Hainbat kolektibok sortu eta osatzen duten proiektua da eta oso eskertuta daude kideekin: “Oso ondo zaindu gaituzte, konfiantza osoz”. Pantx Records kolektiboaren bidez heldu ziren estudioira. “Mamba Beltzak bizitza eman digu”, borobildu dute euren esperientzia.

Oztopoak oztopo, azkenean kaleratu dute diskoa. Estilo asko nahastu dituzte bederatzi kantuko lanean: nagusi den metal-ropaz gain, funkya, trasha edota distortsioak aurkituko ditu entzuleak. “Metal-ropa dela esaten dugu zerbait esatearren, baina hauek konposatzeko orduan zoratuta daude, abesti batean bost aldaketa sartzen dituzte, eta bost-sei minutuko abestiak dira. Talderen batek gure abesti batekin disko oso bat egingo luke”, argitu du Del Barriok. Estiloekin jolasteak probatzeko balio izan die, esperimenturako.

Zuzeneko taldea

Diskoa ez da inoiz helburu izan taldearentzako, kontzertuak ematen gozatzen baitute gehiago grabatzen baino. Entzuleek ere zuzeneko gehiago preziatuko dutela uste dute: “Diskoa artifizialagoa da, zuzenekoak beti gehiago ematen du, are gehiago bi abeslari dituzunean eta musika indartsua egiten dituzunean”. Nolanahi ere, zuzenekoaren eragina agerikoa da abesti guztietan. Horrela azaldu digu Mikel Del Barriok: “Kontzertu batzuk eman ahal izan ditugu eta horrela abestien energia neurtu eta gustatzen ez zitzaizkigun gauzak aldatu ahal izan ditugu. Zuzeneko ere prozesuaren parte izan da eta oso aberasgarria izan da”.

Tamalez, lana nahi luketen bezala aurkezteko eta zuzeneko gehiago emateko itxaron beharko dute. Gu-txienez, datorren urteko udan aurkezpen bira egiteko esperantza badute. Gustatuko litzaieke hemendik hona ibiltzea kontzertuak ematen, jendearekin egoten eta diskoa banatzen, baina, bistan denez, momentuz behintzat zaila izango da. “Egoera berria da eta ez dakigu nola jokatu, guk ezin dugu akustiko bat eman jendea eserita dagoela, guretzat ez du zentzurik”. Bitartean, diskoa gertuko jendearen artean, tabernetan eta sare sozialen bitartez saltzen saiatuko dira. Plataforma digitaletan ere izango da eskuragarri. Kontzertuak ematera itzuli bitartean, sortzen eta konposatzen jarraituko dute, “hurrengo diskoa atera arte”.

P6
PROIEKTOA



UBÚ, REY DE LAS FINANZAS

azaroaren 19tik
 abenduaren 08ra

Zuzendaritza RAMÓN BAREA
 GAZTE KONPAINIA

www.pabellon6.org



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Txistorra eta odolostea

Urriaren 26ko dekretuari jaramon eginez taberna itxita eta jarduera etenda duten arren, tarte bat eskaini digute La Bodega tabernako Maribel eta Walterrek. Oñatiko Unibertsitatearen kaleko 10. zenbakian ia 60 urte daramatzan taberna historikoaren sekretuak kontatu dizkigute.

Zailtasun maila: Erraza

Egiteko denbora: 4 minutu

Prezioa: Txistorra 1,30€ eta odolostea 1,50€

Berezitasuna: Momentuan prestatzen dituzte, asteko edozein egunetan.

Kontu batzuk

Orain 58 urte inguru, Jeronimo Huidobro izeneko gizon batek ireki zuen La Bodega taberna Oñatiko Unibertsitatearen kalean. Barrura sartu eta segituan nabaritzen da antzinakotasuna: Asturiasetik ekarritako egur sendoa, dekorazioa, koadroak... Aldaketa batzuk tarteko, garai hartako giro eta eskaintzarekin jarraitzen dute egun Walter eta Maribelek: pintxo beroak eta txistorra eta odoloste anoak. Orain ardoa ez dute zahagietan ekartzen lehen bezala, eta bazkaririk ez dute ematen, baina gosez ez geratzeko moduko pintxo eskaintza oparoa dute: olagarroa, patatak, piper beteak, piperminak, gildak, patata tortillak, bakailao tortillak, salda beroa...

La Bodegako Maribel eta Walter



LA BODEGA TABERNA

Oñateko Unibertsitatearen kalea 10
622 231 887



Zelan egin?

Txistorra frijitu eta bi ogi xerra artean jartzen dute.

Odolostea frijitu eta ogi xerra baten gainean jartzen dute.

Amaitzeko, Errioxako pipermin zati bat jartzen diote gainean.

OSAGIAK

Txistorra freskoa


Burgosko odolostea

Errioxako pipermina



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



BIRUS GUZTIEN GAINETIK



MIKEL BEGOÑA

Komikikuxkuseroa

Urte hasieran Farmazia Beltza argitaletxeak *Kobane Calling* eleberrri grafikoa kaleratu zuen. Farmazia Beltzak aukeratu duen bideari esker, euskal irakurleok Zerocalcare italiar egile alternatiboaren lanak irakurtzeko aukera izaten ari gara. Aurretik *Hondamuienean* eta *Hondamuienean sei hilabete geroago* euskaratu zituzten Farmaziako lagunek, eta birusaren urte honetan ("konfinamenduaren lehen egunean" Sustrai Colinak aitzinsolasean zehatzago idatzi zuen lez), Zerocalcareren lan nagusia heldu zen: *Kobane Calling*. Rojavara brigadista moduan egin zuen bidaia kontaktzen du egileak. Eta ez dut ezer gehiago esango lan honi buruz, maisulanek ez dutelako publizitate gehiegirik behar.

Kovanetik El Salvadorra goaz. *Emakume guztiok* Astiberri argitaletxeak Mundubat Gobernu Kanpoko Erakundearen laguntzaz kaleratu duen komikia da. Elizabeth Casillas eta Higinia Garay egileek El Salvadorren emakumeek jasotzen duten egoera latza salatzen dute komikiaren orrialdeetan; herrialde horretan abortua oso delitu larritzat jotzen baita, eta zenbait kasutan, abortatu duten emakumeen espetxe-zigorrak 30 eta 40 urte bitartekoak izatera iristen baitira.

El Salvadorretik Bizkaira bueltatuz, Iñaket, eta artikulu hau sinatzen duenak, aste honetan bertan kaleratu den komikiaren egileak gara, *Helize*. Harriet argitaletxearen eskutik dator Gerra Handiaren garaietan kokatzen den kontakizuna: Helizea matxuratua duen alemaniar itsaspeko bat Plentziako badian agertu da. Jolasetan publikoak Pitxitxiren golak ospatzen dituen une berean, gurdi batek ziztuan Bizkaia zeharkatzen du helize baten garraioan.

Eta Pitxitxiren golak kantatuz bagoaz hurrengo batera arte.

Doinua: ETA-ren su etenetik



JON MIKEL BENITO DEL VALLE SOLAUN

Elorri bertso-eskolako kidea

Bizitza ederra da ta
gauza onak asko dira:
lagun, artelan, natura,
maitasun eta desira.
Halaber, mundu honetan
injustizia aski da;
azaroko arazoak:
grebak, mugak, tirabira,
Osakidetza, tabernak,
politika, eztabaida,
Amerikan urakanek
ondasunak ur azpira
eta jota gelditu naiz
ni Senegali begira.

Senegaldik irten eta
Europa zuten helmuga,
baina Kanarietaraino
itsaso zabala, ura;
ia bostehun hildako
dolu latza, arrangura.
Bihurtu zaigu ohitura,
norena ote ardura?
Milioika euro mugituz
zorrotz zaindu dadin muga;
konponbidea hori den
egin dezakegu duda.
Egoera aldatzea
denok ez al dugu gura?

Indartu euskarazko tokiko hedabideak

Izan herriko aldizkariaren parte

Gertuko informazioa hileropaperean eta e-postan



Babestu PREST! aldizkaria 25 euro urtean

 prestharpide@gmail.com



Bilbon euskaraz





A

I

D

L

A

R

A

K

S

U

E



OSMANOĞLU
SINANOĞLU

OSMANOĞLU
GÜZEL

TEAM

OR

PREST